

EKARPENAK

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN SARTZEKO
ETA BERTAKO LANPOSTUAK BETETZEKO
MEREZIMENDUEN BALORAZIO-DEKRETUA



“K EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

B HIZKUNTZ
ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

ATARIKOA

Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren proposamena argitaratu berri du Nafarroako Gobernuak. Honako dokumentu honen bidez, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak zuzenketak aurkeztu nahi dizkiote. Izan ere, ordezkaten ditugun erakundeek hizkuntza-eskubideen defentsa eta euskararen normalizazioa sustatzeko helburu duten aldetik, Foru Dekretu honekiko desadostasuna agertu nahi dugu. Dekretu honek ondorio zuzenak eragingo ditu herritarren hizkuntza-eskubideen bermean, bai eta administrazio publikoan euskarak izan dezakeen garapenean. Atzerapausoak ekarriko dituzten ondorioak.

Kontuan izan behar dugu, irakaskuntzako lanpostuak albo batera utzita, Nafarroako Gobernuak lanpostuetatik %3k besterik ez dutela ezarrita euskararen derrigorrezko ezagutza. Ondorioz, herritarren eskubideak bermatzeko eta euskara lan hizkuntza izateko langile berrien hizkuntza-gaitasunak berebiziko garrantzia hartuko du. Eta, beraz, euskararen ezagutza behar bezala baloratzeak asko lagunduko dio herritarren hizkuntza-hautuari.

Arazo eta oztopo ugari dute herritarrek gaur egun zerbitzuak euskaraz eta berdintasunean jasotzeko: tramiteak euskaraz egiteko ezintasuna, telefono bidezko arreta euskaraz ezin jasotzea, euskarazko euskarri, eduki edota dokumentazioa ezin jasotzea... Herritarren arteko berdintasuna hausten du Gobernuak euskararen hautua egiten duten herritarrekiko. Horrexegatik, oso garrantzitsua da administrazio publikoan euskararen ezagutzak balorazio egokia izatea, horrek baldintzatuko baitu sistema osoa.

Urtarrilean oso gogor jo genuen bi erakundeok Gobernuak publiko egindako dekretu-zirriborroaren aurrean. Atzerapausoak ikusteaz gain, garai bateko politika ilunera itzultzeko arriskua jarri genuen mahai gainean. Horrela, herritarrak eta askotariko eragileak aktibatu genituen. Horren ondorioz, 1.700 herritarrek baino gehiagok eskaera administratibo zuzenak egin zizkioten Gobernuari dekretuak beste ezaugarri batzuk izan ditzan eta eskubideak urra ez dakizkien. Are gehiago, maiatzean milaka herritarrok Iruñeko kaleak hartu genituen kohesioa, berdintasuna eta justizia oinarri izango dituen dekretua presta dezala eskatzeko.

Tamalez, Nafarroako Gobernuak entzungor egin die milaka herritarren eskaerei, bai eta berdintasuna bermatzeko politikei ere. Horrexegatik, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, honako zuzenketa hauen bidez, Gobernuari Dekretuaren hainbat artikuluko eskatu nahi diogu, baldin eta politika berdinzalea garatzeko bokazioa baldin badu.

Paul Bilbao Sarria
Kontseiluko idazkari nagusia

Agurne Gaubeka Erauskin
Behatokiko zuzendaria

ZUZENKETAK

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua aldatzeko azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuan egindako aldaketei zuzenketak:

ARTIKULUA: 1. artikulua, BAT

EKARPEN ZBK.: 1

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

Erreferentzia:
215/1985 Dek 9.2. art.

Testu berria:

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- Eremu euskaldunear: 13,8 puntu, gehienez.
- Eremu mistoan: 9,2 puntu gehienez, foru dekretu honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako lanpostuetan, eta 6,9 puntu gainerakoetan.
- Eremu ez-euskaldunear: 6,9 puntu, gehienez.

ARTIKULUA: 1. artikulua, BAT

EKARPEN ZBK.: 2

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

Erreferentzia:
215/1985 Dek 9.2. art

Testu berria:

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- Eremu euskaldunear: 13,8 puntu, gehienez.
- Eremu mistoan: 9,2 puntu gehienez, foru dekretu honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritako lanpostuetan, eta 6,9 puntu gainerakoetan

ARTIKULUA: 1. artikulua, BI

EKARPEN ZBK.: 3

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

Erreferentzia:
215/1985 Dek 15.4. art.

Testu berria:

Aurreko apartatueta ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- Eremu euskaldunear: 34,5 puntu gehienez.
- Eremu mistoan: 23 puntu gehienez, lanpostuaren edukiarekin zerikusia dutenean, eta 17,25 puntu gainerakoetan.
- Eremu ez-euskaldunear: 17,25 puntu gehienez

ARTIKULUA: 1. artikulua, BI
EKARPEN ZBK.: 4
PROPOSAMENA:
MOLDATZEA
Erreferentzia:
215/1985 Dek 15.4. art
Testu berria:

Aurreko apartatuetan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: 34,5 puntu gehienez.
- b) Eremu mistoan: 23 puntu gehienez, lanpostuaren edukiarekin zerikusia dutenean, eta 17,25 puntu gainerakoetan.

ARTIKULUA: 1. artikulua, HIRU
EKARPEN ZBK.: 5
PROPOSAMENA:
MOLDATZEA
Erreferentzia:
215/1985 Dek 20 BIS, 2 art.
Testu berria:

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: 34,5 puntu, gehienez.
- b) Eremu mistoan: 23 puntu gehienez, lanpostuaren edukiarekin zerikusia dutenean, eta 17,25 puntu gainerakoetan
- c) Eremu ez-euskaldunean: 17,25 puntu gehienez

ARTIKULUA: 1. artikulua, HIRU
EKARPEN ZBK.: 6
PROPOSAMENA:
MOLDATZEA
Erreferentzia:
215/1985 Dek 20 BIS, 2 art.
Testu berria:

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: 34,5 puntu, gehienez.
- b) Eremu mistoan: 23 puntu gehienez, lanpostuaren edukiarekin zerikusia dutenean, eta 17,25 puntu gainerakoetan

2. artikulua. Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko Erregelamendua aldatzea; erregelamendu hori ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretu bidez onetsi zen:

ARTIKULUA: 2. artikulua

EKARPEN ZBK.: 7

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

**113/1985 Dekretua
Artikulua: 19.2.**

Testu berria:

Euskararen ezagutza baloratuko da lanpostuak kokatuta dauden eremuaren arabera, ele bikotzat jotzen ez diren lanpostuei dagokienez eta honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 30.
- b) Eremu mistoan: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 20, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezartzen diren lanpostuetan; foru dekretu horren bidez onetsi zen Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua; eta % 15 gainerakoetan.
- c) Eremu ez-euskaldunean: % 15 puntu gehienez

ARTIKULUA: 2. artikulua

EKARPEN ZBK.: 8

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

**113/1985 Dekretua
Artikulua: 19.2.**

Testu berria:

Euskararen ezagutza baloratuko da lanpostuak kokatuta dauden eremuaren arabera, ele bikotzat jotzen ez diren lanpostuei dagokienez eta honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 30.
- b) Eremu mistoan: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 20, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezartzen diren lanpostuetan; foru dekretu horren bidez onetsi zen Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua; eta % 15 gainerakoetan.

3. artikulua. Nafarroako Foruzaingoaren kidegoko lanpostuak betetzeko Erregelamendua aldatzea; erregelamendu hori onetsi zen martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretuaren bidez:

ARTIKULUA: 3. artikulua, BAT

EKARPEN ZBK.: 9

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

27/2002 Dekretua
Artikulua: 19.3.

Testu berria:

Euskararen ezagutza baloratuko da, lanpostuak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: 15 puntu, gehienez.
- b) Eremu mistoan: 10 puntu gehienez.
- c) Eremu ez-euskaldunean: 10 puntu gehienez

ARTIKULUA: 3. artikulua, BAT

EKARPEN ZBK.: 10

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

27/2002 Dekretua
Artikulua: 19.3.

Testu berria:

Euskararen ezagutza baloratuko da, lanpostuak kokatuta dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauen arabera:

- a) Eremu euskaldunean: 15 puntu, gehienez.
- b) Eremu mistoan: 10 puntu gehienez.

ARTIKULUA: 3. artikulua, BI

EKARPEN ZBK.: 11

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

113/1985 Dekretua

Testu berria:

F) Euskara ezagutzeagatiko puntuazioa:

Euskararen ezagutza baloratuko da lanpostuak kokatuta dauden eremuaren arabera:

- a) Destinoa eremu euskaldunean duten lanpostuak: 15 puntu, gehienez.
EGA tituluia izanez gero, edo beste titulu ofizial bat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea, 15 puntuko balorazioa jasoko da. Titulu hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A2 maila izanez gero 4,44, B1 izanez gero 8.88, eta B2 izanez gero 12. Titulu baliokideek balorazio bera izanen dute. Bestela, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitza 0,92 punturekin baloratuko da.
- b) Eremu mistoa eta ez-euskalduna destinoa duten plazak: 10 puntu gehienez Foruzaingoaren kidegoko lanpostuetan, Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamenduaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoetan, alegia.
EGA tituluia izanez gero, edo beste titulu ofizial bat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea, 10 puntuko balorazioa jasoko da. Titulu hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren, A2 maila izanez gero 2,66, B1 izanez gero 6, eta B2 izanez gero 8. Titulu baliokideek balorazio bera izanen dute. Bestela, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitza 0,55 punturekin baloratuko da."

113/1985 Dekretua
Testu berria:
F) Euskara ezagutzeagatiko puntuazioa:

Euskararen ezagutza baloratuko da lanpostuak kokatuta dauden eremuaren arabera:

- a) Destinoa eremu euskaldunean duten lanpostuak: 15 puntu, gehienez.
EGA tituluia izanez gero, edo beste titulu ofizial bat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea, 15 puntuko balorazioa jasoko da. Titulu hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A2 maila izanez gero 4,44, B1 izanez gero 8.88, eta B2 izanez gero 12. Titulu baliokideek balorazio bera izanen dute. Bestela, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitza 0,92 punturekin baloratuko da.
- b) Eremu mistoa destinoa duten plazak: 10 puntu gehienez Foruzaingoaren kidegoko lanpostuetan, Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamenduaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoetan, alegia.
EGA tituluia izanez gero, edo beste titulu ofizial bat, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailaren baliokidea, 10 puntuko balorazioa jasoko da. Titulu hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren, A2 maila izanez gero 2,66, B1 izanez gero 6, eta B2 izanez gero 8. Titulu baliokideek balorazio bera izanen dute. Bestela, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitza 0,55 punturekin baloratuko da.”

4. artikulua. Azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretua aldatzea; foru dekretu horren bidez arauak eman ziren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko:

ARTIKULUA: 4. artikulua, BAT

EKARPEN ZBK.: 13

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

**347/1993 Dekretua
6. artikulua**

Testu berria:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide espezifiko arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean (A eranskina: Osasun Estamentuak) jasotako osasun lanpostuetan euskara jakiteak, ele bikotzat zehaztuta ez badaude, honako balorazio hau ekarri beharko du oposizio-lehiaketa bidez egiten den sartzeko prozeduran:

- a) Eremu euskaldunean: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 30.
- b) Eremu mistoan: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 20.
- c) Eremu ez-euskaldunean: 15

Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea lanpostuarekin zerikusia duenean baloratuko da, eta Osasuneko kontseilariaren foru agindu bidez jaso beharko da lanpostu horien zerrenda eta ezagutza horren haztapena

ARTIKULUA: 4. artikulua, BAT

EKARPEN ZBK.: 14

PROPOSAMENA: MOLDATZEA

**347/1993 Dekretua
6. artikulua**

Testu berria:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide espezifiko arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean (A eranskina: Osasun Estamentuak) jasotako osasun lanpostuetan euskara jakiteak, ele bikotzat zehaztuta ez badaude, honako balorazio hau ekarri beharko du oposizio-lehiaketa bidez egiten den sartzeko prozeduran:

- a) Eremu euskaldunean: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 30.
- b) Eremu mistoan: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 20.

Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea lanpostuarekin zerikusia duenean baloratuko da, eta Osasuneko kontseilariaren foru agindu bidez jaso beharko da lanpostu horien zerrenda eta ezagutza horren haztapena

ARTIKULUA: 4. artikulua, BAT
EKARPEN ZBK.: 15
PROPOSAMENA
MOLDATZEA
**347/1993 Dekretua
21.3. artikulua**
Testu berria:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide espezifiko arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean (A eranskina: Osasun Estamentuak) jasotako osasun lanpostuetan euskara jakiteak, ele bikotzat zehaztuta ez badaude, honako balorazio hau ekarri beharko du oposizio-lehiaketa bidez egiten den sartzeko prozeduran:

- a) Eremu euskaldunean: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 30
- b) Eremu mistoan: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 20.
- c) Eremu ez-euskaldunean: %15 lanpostu guztietan

Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea lanpostuarekin zerikusia duenean baloratuko da, eta Osasuneko kontseilariaren foru agindu bidez jaso beharko da lanpostu horien zerrenda eta ezagutza horren haztapena

ARTIKULUA: 4. artikulua, BAT
EKARPEN ZBK.: 16
PROPOSAMENA
MOLDATZEA
**347/1993 Dekretua
21.3. artikulua**
Testu berria:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide espezifiko arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean (A eranskina: Osasun Estamentuak) jasotako osasun lanpostuetan euskara jakiteak, ele bikotzat zehaztuta ez badaude, honako balorazio hau ekarri beharko du oposizio-lehiaketa bidez egiten den sartzeko prozeduran:

- a) Eremu euskaldunean: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 30.
- b) Eremu mistoan: merezimenduen baremoaren gainerakoari esleitutako puntuazioaren % 20.

Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea lanpostuarekin zerikusia duenean baloratuko da, eta Osasuneko kontseilariaren foru agindu bidez jaso beharko da lanpostu horien zerrenda eta ezagutza horren haztapena.

5. artikulua. BERRIA

ARTIKULUA: 5.

EKARPEN ZBK.: 17

PROPOSAMENA:

TXERTATZEA

Testu berria:

Nafarroa osoko edozein lanpostutan Europar Batasuneko hizkuntza guztien ezagutzarengatik lor daitekeen gehienezko puntuazioa ez da inoiz izango euskararen ezagutzarengatik lortzen dena baino altuagoa.